

## Bi abiaduretako mundua

LUZIEN ETXEZAHARRETA



**P**OBRE eta aberatsak elkarren aurka altxatzeko nahikeria nahaskeriaren seinale jarri dute beti botereek. Eta bereziki 'esku-bikoak' izendatzen diren horiek. Badira adierazpenak nasaiki, Hazparneko erretor ohi bat edo hainbat gobernuak. Altabada teoria ederrak egin dira ere menperatu-menperatzaile bikote horren ezabatzeko.

Amets amerikarrak omen pobrezia, ez soilik bere lurraldeetarik, baina bere ereduaren adierazpen sana gatik mundu guzitik ezabatu behar omen du, berak sortu eta kontrolatu demokrazia forma baten bidez.

Los Angeles-eko gertakariak, aberastunaren ikur den eskualdearen bihotzean nonbait gezur bat dagoela agertzen digu. Medikuntza jakina aplikatzen dute: duela mende bat bezala Chicagon edo Frantziaren Fourmies-en bezala estatuaren beso armatuak badaki nora bota bere tiroa.

Frantziaren azken urte hauetan 'bi abiaduretako gizartea' eraikitzen ari dela salatzen dute. Jabetasundunen eta ezer ez dutenen eskola, lana, medikuntza edo kultura argiki ezberdintzen dira.

Baionako lan bulegoetan 'lana parteka dezagun eta ez miseria' zioten maiatzaren leko pintadetan. Moskun 20.000 omen 'komunista kontserbadoreek', prentsa 'libreak' dion bezala 'udaberriaren festa'ko ospakizunak nahastu dituzte. Egun berean Urruñan Gure Irratiak 'Iraultzako Kantuak' eman arazi ditu, elizan... Orduan ere bi abiaduretako gizartea zen eta pobreek 'aristokratik' mendekatu zituzten.

Maiatzaren 1a: elkarren aurka altxatzen ari diren bi abiaduretako munduei pentsatzean Euskal Herriko euriak su garren ilunak gogora arazten zituen.

## Europa maitea

JOAN MARI TORREALDAI



**E**GUNOTAN, ez dakit zergatik, agian Maastricht-i buruz artikulatu bat irakurri beharra izan dudalako, Europak guretzako duen esangurarekin nabil bueltaka.

Nik, eta nere belaunaldiak, mila aldiz aipatu izan dugu Europa gaitz guztien erremedio bailizan. Orain ere hitzetik hortzera darabilte Europaren izena. Baina ez zentzu be-rean.

Lehen, frankismo-garaian, demokrazia/askatasunaren erreferentzia zen Europa. Areago: Euskal Herria European kokatzea, kokatzea hutsa besterik gabe, susmagarri zen zentsuratzailentzat, adibidez. Euskadi-Europa zuzen zuzenean lotzeak Espainia 'baztertzea' adierazten omen zuen. Baztertzea ez dakit, baina Euskal Herriaren independentzia adierazi nahi zuela, hori bai.

Zeren erreferente da Europa gaur egun?

Auskalo! European 'salbazioa' ikusi nahia ihesbide da beste ezer baino gehiago. Herrien Europa? Entelekia gisakoa da hori. Europa ez da komunitate bat. Eta ez du izan nahi ere. Pierre Villar historigileari irakurri berri diot hau: «... gaur egun Europa proposatzen denean, azken baten ez da komunitate bat proposatzen, potentzia bat baizik».

Potentzia batek balio lezake industria antolatzeke, jakiak banatzeko eta... baina nekez identifikatu daiteke jendea harekin. Zein da gaur egungo agintariak aginduriko zorioneko Europa 'berria'? Ez dakit ziur, baina ez da 'gure' Europa hura, hori seguru.

## Diario 16

### Leitzarani buruzko desberdintasunak

Gobernu arrazoiak Estatuaren benetako arrazoen aurretik jarri dira. Inork ez bait du zalantzan jartzen Ajuria Eneako Hitzarrena pikotara joan dela, hasierako indarkeriaren aurkako eskal alderti guztien konpromezu demokratikoa eta terrorismoaren aurkako borrokaren estrategian atzera goazela eta ETaren txantai ahalmenean, berriz, aurrera.

EDITORIALA

## DEIA

### Euskara elkarlanaren zain

Auzi zahar batzuk konpontze-

## HEMEROTEKA



MATTIN / ARGIA

ko garaia dugu. Eskarmentua izateko aina muturreko eman eta hartu dugu. Horretarako, ordea, irabazle eta galtzaileak sortzen dituen apostu eta erronkak alde batera utzi behar ditugu. Edozein konpontzio ordurarteko kontrarioarentzat ozpin garrantz bihurtzen den txanpainaz ospatu behar badu garaile ustekoak, fidakaizeriak eta errezeluak ez dira urtuko. Ezta euskalgintzako herri ekimenak eta egiturak, izkutuko beste harreman, ibili eta lanetarako erabiltzen badira ere, zen-

baitek egin duen bezala.

M. ATXAGA

## EL MUNDO

### Sindikatuak Gobernuaren aurka

Benetako arazoa konpontzeko (langabezia ordaintzean sortutako defizit handia), Gobernuak za-

lantzako eraginkortasuneko metodoak erabili nahi ditu, bidegabeko metodoak direnak, gainera, argi eta garbi. Gobernuak langabezia dauden langileei enpleguaren benetako alternatibak ez aurkezteaz gain, lanpostuak suntsitu eta lurralde osoak pobretzen ditu. Eta hain egoera ilunari azken ukitua emateko, greba eskubidea murrizten ahalagindu da, agente sozialen adostasunik ez duen proiektuarekin.

EDITORIALA

## ZUZENDARIARI

### Xabier Arzalluz kakamokordoari eskutiz irekia

«Es el colmo que haya personas que hablen del derecho a cumplir la condena, como ha dicho algún abogado de HB».

Kolmo batetik kolmo-de-lo kolmoseraino. Hainbeste urte gartzelan pasa eta aguantatu dut orain arte, Arzalluz eta bera bezalako kakamokordoen pitokeriak, baina honetan ez naiz isilik geratuko, terapia oso ona omen da buruarentzat gauzak kanporatzea —kasu honetan izkribatzea— orain dela gutxi psikologiazko liburu batean leitu nuelakoz.

Guk ez dugu inoiz exigitu «el derecho a cumplir la condena». Guk inolako kondena-rik onartzen ez dugulako, eta honetarako Arzalluz in CYA-koei ondo etorriko zitzaizen noizean behin —abusatu gabe— Madrileko Audentzia Nazionalera joatea, gu Espainiako juez-etaz, audentziak eta kondenetaz zer pentsatzen dugun jakiteko. Nik behintzat, egon badago gauza bat edo eskubide bat ozenki aldarrikatzen dudana (Arzalluz jauna, adi egon!!!), nik ez dut eskatzen «el derecho a cumplir la condena» nik eskatzen dudana zera da (eta gaztelaniaz ipiniko dut PNV handimandi guziek uler

rezaten): «El derecho a vivir en paz», nahiz eta gartzelan egon.

Laostia da giltzapean bizitzeaz aparte, ikustea hemen edozein kakamokordok (nahiz eta karreraduna, edo Lehendakaria edo edozer gauza izanda) gutaz hitzegiten dutela: nekaturik omen gaudela («diote»), nazkaturik omen gaude («diote»), borroka armatuaz ernegatzen dugula («diote»), Pakitotaz jada ez omen gaude maitemindurik («diote»); hemen denek dena diote denek ezer jakin barik (edo gehiegi jakinda agian).

HBko zenbait abokatuak diote ere bai, baina beraiek behintzat jakin badakite zertaz hitzegiten duten (noizean behin bisitatzeraz bait datozkigu), eta erraiten dutena gure gustokoa izango ez balitz, abogatuaz aldatuko genukeen eta kitto (beti egongo baita Anasagasti edo Azkarragaren bat beti prest guri 'laguntzeko'... eta 'prestigio' apur bat edota txanpon batzuk eskuratuz bidebatez...).

Hau idazten ideia bat etorri zait burura, zertaz hitzegiten duten jakiteko —eta abusatatu gabe kasu honetan ere— etor daitezela guregana bisitatxoren bat egitera (ziur Madriletik baimena etxandoostias ematen dietela), etor daitezela adibidez Arzalluz eta Ardanza lehendakaria; baina etor daitezela 'guardaespaldas' barik. Gartzelaz gartzela has daitezela, eta ziur naiz hamargarren

gartzelatik ez direla pasako; eta etor daitezela beldur barik, armak eta komisarian kendu zigutelakoz. Hala gainera edukiko dute ezingaldutako oportunitatea zuzenean konprobatzeko ze 'biolentoak' garen 'biolentoak'. Eta ahal bada etor daitezela visa-vis batera, hala zuzenean egonda, hitz batzuk entzun at ostia bat baino gehiago jasoko litzukete 'biolentoen' partetik, baina maitasun osoaz hori bai.

Gero sartzen badigute beste 6 urteko zigorra holako kakamokordo bat jipoitzeagatik, neuk behintzat gustora igaroko nitzuke beste sei urte giltzapean honexegatik (ziur bait naiz visavis-eko denbora inoiz baino hobeto aprobetxatuko dudala).

Beraz, zinez pentsatzen duguna jakin nahi baduzu Arzalluz, jakin nahi baduzu Ar!! Dantza!! ezin aprobetxatzeko okasioa daukazu. Zuen zain eta bihotz-bihotzez:

MIKEL BELARDI

Oharra 1: ez erraizue orain, hau 'ero' baten idazkia denik, izan ere orain dela gutxi psikiatra eta psikologo batekin hitzegin ondoren (eta ez ziren HBkoak) erran zidaten neu burutik oso ondo nagoela.

Oharra 2: Bigun eta gogor arteko dialektikari buruz hitz lau: gu-er-gara-turroiak.

MIKEL BELARDI

(Euskal preso politikoa)

## GAIA JARRITA



### Athletic-Osasuna

Iruñen Osasuna ta Bilbon Athletic ez dutenak erten nahi beheko atetik biek irabaztea nik desiogatik ezinezkoa dala neuk ere badakit

EUSEBIO IGARZABAL

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:  
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:  
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:  
LUZIEN ETXEZAHARRETA, IÑAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77  
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11